

2018ko maiatza



Joan den maiatzaren 4an Gaindegiak (Euskal herriko ekonomia eta gizarte garapenerako behategiak) abian duen *Udalbizi* egitasmoaren baitan *Tokiko iraunkortasunaren eredu propio baterantz* izeneko jardunaldia ospatu zen Oñatin (Gipuzkoa). Besteak beste, hautetsiei zuzendutako saio honetan Lea-Artibai eskualdeko garapen ekonomikoaren eredia izan zen aztergai. Azaro Fundazioko zuzendaria den Ainhoa Arrizubietak Lea-Artibaiko garapen ekonomikoaren gobernantza eredia zein den azaldu zuen, eta baita 2020ra begirako erronka estrategiko nagusiak zeintzuk diren. Horrez gain, enplegua sortzeko martxan jarri diren programa eta zerbitzuen berri ere eman zuen. Mahai ingurua EHU-ko Enekoitz Etxezarretak gidatu zuen eta Koopfabrikak ere parte hartu zuen.